

Urteko aurrekontua ez zen onartu

Udalbatzarrean aurkeztu ziren emendakinak ere ez ziren aintzat hartu

Lasarte-Oriako Gobernu taldeak 2010. urteko aurrekontua orokorraren proiektua aurkeztu zuen ostegunean Udalbatzarrean eta oposizioak bat eginez atzera bota zuen.

Era berean, aurrekontuei egindako emendakinak ere ez ziren onartu.

Aurkeztutako aurrekontua 33 milioi eurokoa zen eta honetan, ia 3 milioiko defizitu aurreikusten zen. Gobernu taldearen arabera, "esfortzu handia egin da gastuei eusteko."

Emendakin osoak

EAJ, LOHP eta EB alderdiek aurrekontuaren zuzenketa osoa eskatu zuten eta PSEE eta PP alderdien aurkako bozkek atzera bota zituzten.

LOHPak Udalaren kudeaketa serioa ez dela adierazi zuen, "2008ko aurrekontua ez zen osorik bete, 2009an, luzatua izan zen eta 2010ean, berandu aurkezten dira, ehuneko handia egin dagoenean" eta gastu handia dagoela salatu zuen, "diru sarrerak baino gastu korronte gehiago dago."

Honela, langile eta gastu murrizketa, haur eskola eta jangelaren erantzukizuna Hezkuntzaren esku uztea eta 2011ko aurrekontua egitea gomendatu zion Gobernu taldeari.

EAJ alderdiak urteko garai honetan kredituen aldatzea egi-



Alderdi guztietako zinegotziak egon ziren 2010eko aurrekontua atzera bota zen Udalbatzarrean.

Arg.:Txema Valles

tea normalagoa dela adierazi zion Gobernu taldeari eta bat etorri zen LOHPekin 2011ko aurrekontua prestatu behar zuela esatean.

Honetaz gain, aurrekontuek zorpetze handia dakarrela, sail batzuen diru sarrerak eta gastuak errealak ez izatea eta beharrezkoak ez diren lanak egin direla salatu zuen.

EBk positibotzat hartu zuen aurrekontua aurkeztea eta "2011ko aurrekonturako baliagarria izatea" espero zuela ere adierazi zuen.

Ortega bat etorri zen LOHPekin, aurrekonturen ehuneko handia egin dagoela aipatzean

eta Udalarenak ez diren erantzukizunak dagokien erakunde eskuetan jarri behar direla aipatzean, Atsokabarreko zaharren egoitza, esate baterako.

Langileekiko hartutako neurriekin ez zen ados agertu eta zaborren faktura igoera Partzuergoak errauskailua finantzatzeko erabiliko duela salatu zuen.

PSEEk oposizio alderdiek aurretik aurrekontua ez aurkeztea eta orain aurkeztea leporatu izana salatu zuen eta egoerari egokitutako aurrekontua dela azaldu zuten.

Era berean, haur eskola, jangela eta Atsokabar zahar

egoitzako ardura izan beharko luketen erakundeekin negoziaketetan daudela jakin arazi zuen, "horrek gastu karga handia kenduko liguke."

Emendakin partzialak

Ostean, alkateak 15 minutuko atsedena eskatu zuen arren, ordu erdiko etena egin zen.

Ezker Abertzaleko zinegotziak kexa aurkeztu zuten luzapen horregatik.

Horren ostean, PSEEk aurkeztutako inbertsioen murrizketaren emendakina bertan behera utzi zuen alderdiak.

Eta PP eta EAJ alderdiek emendakin transakzionala, hau

da, bateratua egin zuten, udalbatzarrean negoziaketa eginez.

Azkenean, liberatu baten eta alkatetzako laguntzaile baten murrizketaz gain, Gobernu taldeko liberatuen soldataren %5a eta beste zinegotzien %10a jaitea proposatu zuten.

PSEEk eta Ezker Abertzaleko bozkek, zuzenketa egitea ekidindu zuten. Ezker Abertzaleko zinegotziek gertatutakoa salatu zuten, "hau guztia dagokion Batzordean negoziatu behar da, hau ez da gauzak egiteko era".

Bestalde, EAJk Gaztelekuko lanen eta zerbitzuen gastuak kentzeko eskatu zuten eta, era berean, Urgolf enpresa eta Udalaren akordioaren arabera egingo diren etxebizitzaren urbanizazio diru sarrerak eta gastuak aurrekontutik kentzeko eskaera egin zuen alderdi jeltzaleak.

Koherentzia

Alkateak presari azaldu zionenez, Udalarentzat egoera zaila da hau, aurrekontuak onartu ez izana, "aurreikusiak zeuden zenbait obra oraingoz bertan behera geratzea dakar".

Gauzak horrela, oposizioko taldeei koherentzia eskatzen die, "lan hauen alde bozkatu dute, baina hauen finantzaketa ezetz esan diote."

Honetaz gain, 2011ko aurrekontuan lanean direla aurreratu zuen. •



Miguel Angel Oriberen *Barne arkitekturak* Urretxun ikusgai /4

GIZARTEA /3

Zaharren omenaldi eguna ospatuko da igandean

KIROLA /6

David Martin korrikalaria Zumaiako Zakila biran garaile izan zen

Hurrengo TXINTXARRI urriaren 15ean, ostiralean, argitaratuko dugu.

Gosariak
Hamaiketakoak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak
Urtebetetzeak

ERREKATXO
JATETxea

KARTA
eta
EGUNEKO MENUA



NAGUSI BERRIAK
Ordutegi berria
Giro berria

WIFI GUNEA

Oria Etorbidea Ibaiondo Poligonoa 4 • Tel.: 943 365557
Lasarte-Oria

Neure kabuz



Sexua: E ala G

Bigarren haurdunaldi honetan ere gauzak ez dira aldatu. Nik ere ez ditut gaintutu guztiak. Oraindik orain haurrarentzako erosketak bat egitera noan guztietan galdera bera entzun behar izaten dut: zer da/zer espero duzu neska ala mutila? Uff, uff!!! Logelarako pintura erostera joatean, txupete bat erostera joatean, haurraren kotxerako poltsa, manta, ... edozer dela eta galdera berdinarekin egiten dut topo. Oraingoan mutila espero dut; eta? Ba nik neronek ere ikuskerak batzuk lehen alabarekin aldentuta ezberdin ikusten eta erabakitzen ditudala jabetzen naiz. Tamalez jaiotzerako haurraren sexuan oinarritutako bizitza eraikitzen dugu naiz eta ahalegin guztiak egin horrela ez izateko. Zertarako jakin nahi izaten dugu haurraren sexua? Neurri handi batean erabakiak hartzeko. Nik oraindik kontraesan ugariekin egiten dut topo eta egoera eta erabaki batzuk gaintutzeko prestatuago nago beste batzuk baino. Ez dut ukatuko. Sexuari kulturalki egiten diogu genero eraikuntza jakin bat eta honen eraikuntza oso modu deigarrian haurraren sexua jakitean hasten da/dugu. Berriz diot, ni neroni oso jabetun naiz eta agian hau da lehen pausoa. Honetan ahalegin bereziak egingo ditut etxetik hasita nire haurren heziketa ahalik eta parekideena izateko. Bide hau ezin da bakarrik egin beraz hausnartu dezagun guztiok pixkat eta has gaitzen txikiak eta txiki-tzat hartu behar ditugun erabakietan sexua ez den beste guztia zentroan jartzen.

Ainara Lasar

Zorion-agurrak



Antonio

Zorionak aitatxo. Txokolatzeko muxu bat. Julen, Naroa eta ama-txoren partetik.



Manolo

Zorionak emaztea eta semearen partetik. Ea ongi igarotzen dugun bazkarian.



Asintxo

Zorionak aitona!! 70 urte besterik ez dira. Ondo pasa zure eguna, bazkaria zure kontu.



Ane

Zorionak eta muxu handi bat gurasoen eta Unaiaren partetik.



Gaizka

Zorionak pottzok! Zure lehenengo urtebetetzean familia guztietan partetik.



Garazi

Zorionak zure 3. Urtebetzean! Osaba Jesus, amoi, Judith eta Alaznaren partetik!



Nerea

Zorionak zure 11. Urtebetetzean! Famili osoaren partetik.



Iñaki

Zorionak iñaxio! Ea noiz dastatzen ditugun zure sukaldeko menu berriak!



Ekaitz

Zorionak zure lehen urtebetetzean. Muxu handi bat familiaren partez.



Aiora

Zorionak printzesa, ongi pasa zure 3. urtebetetzean. Txokolatzeko muxu pila etxekoaren partetik.

Azoka txikia

Eskaintza inmobiliarioak

• Pisu konpartituan gela alokatzen dut Lasarte-Orian. Harremanetarako zenbakia, 600 612 085.

• Logela alokatzen da Lasarteko erdigunean. 275 euro. Deitu 664 427 082 telefonora 18:00etatik aurrera.

• Etxea errenta eman nahi da Lasarte-Orian, 80 metro karratu ditu eta eguzkitsua da. Harremanetarako telefono zenbakia: 628 904 130.

• Garage irekia alokatzen dut Green plazan. Harremanetarako zenbakia, 943 492 558.

Salerosketak

• Egoera onean dagoen antzinako josteko makina erosiko nuke. Harremanetarako zenbakia, 943 365 149.

Lan-eskaintzak

• Ingeleseko irakaslea behar da, bertakoa, 17 urteko gazte bati eskola partikularrak emateko. Harremanetarako zenbakia, 615 793 964.

Lan-eskariak

• Laguntza klaseak ematen dira, Lehen Hezkuntza, DBH eta Batxilergoa. Talde txikiak, arreta pertsonalizatua, ikasgai guztiak... Harremanetarako zenbakia, 943 376 888 edo 646 645 445 (Maria).

• Gai desberdinetako, euskara, lenguaia, matematika, ingelesa... klaseak emango nituzte. Harremanetarako zenbakia, 943 362 532 edo 693 601 222.

Oharrak jartzeko:

txintxarri@txintxarri.info • www.txintxarri.iragarkilaburrrak.com
www.txintxarri.info • Geltoki kalea 4 • Tel.: 943 366858

Guardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 8
Orue, Jaizkibel plaza 2
Tel.: 943 362652

Larunbata, 9
Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Igandea, 10
Urbistondo, San Frantzisko I
Tel.: 943 366567

Astelehena, 11

De Miguel, Kale Nagusia 32
Tel.: 943 371151

Asteartea, 12
Rodriguez, Kale Nagusia 42 atzea
Tel.: 943 361774

Asteazkena, 13
Gil, Kale Nagusia 24
Tel.: 943 361529

Osteguna, 14
Acha-Orbea, Hipodromo et. 6
Tel.: 943 363549

GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Chuda, Kardaberaz 48 Hernani, Tel.: 943 551793

Hiribusaren ordutegia Lanegunetan

www.tsst.info 943.361.741
Lasarte-Oria

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras	Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Cocheras
7:45	7:55	8:00	8:05	14:15	14:25	14:30	14:35
8:15	8:25	8:30	8:35	14:45	14:55	15:00	15:05
8:45	8:55	9:00	9:05	15:15	15:25	15:30	15:35
9:15	9:25	9:30	9:35				
9:45	9:55	10:00	10:05	16:15	16:25	16:30	16:35
10:15	10:25	10:30	10:35	16:45	16:55	17:00	17:05
10:45	10:55	11:00	11:05	17:15	17:25	17:30	17:35
11:15	11:25	11:30	11:35	17:45	17:55	18:00	18:05
				18:15	18:25	18:30	18:35
12:15	12:25	12:30	12:35	18:45	18:55	19:00	19:05
12:45	12:55	13:00	13:05	19:15	19:25	19:30	19:35
13:15	13:25	13:30	13:35	19:45	19:55	20:00	20:05
13:45	13:55	14:00	14:05	20:15	20:25	20:30	20:35

Jaiotzak

• Jon Galán Martin, irailaren 29an
• Oihane Arzallus Caballero, irailaren 29an.

Heriotzak

• Jose Luis Duran Belmonte, urriaren 6an 45 urte zituela.
• Maria del Carmen Diez Martinez, irailaren 4an.
• M^a Carmen Pérez Cobo, urriaren 1ean 50 urte zituela.

Txintxarri diruz laguntzen duten erakundeak



Lasarte-Oriako Udala
Euskarako Batzordea



GFAko Kultura eta Euskara Departamendua



EUSKO JAURLARITZA
KULTURA SAILA

Argitaratzailea: Itakun Kultur Elkarte, Geltoki kalea 4, 20160 Lasarte-Oria, 943 366858, G-20407557 • Legezko gordailua: SS513/93 • ISSN: 1134-0053 • Inprimategia: Zeroa Multimedia, S.A. Aleak zenbakiko: 7.700 • Erredakzioa: txintxarri@ttakun.com • Publizitatea: publizitatea@ttakun.com • Administrazioa eta banaketa: administrazioa@ttakun.com; ttakun@ttakun.com.

Txintxarriek ez du bere gain hartzen iritzi-artikuluetan eta irakurleek bidalitako gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.



Igandean, herriko 870 pertsona adindu bilduko dira Udalak antolatutako Zaharren omenaldiko bazkarian.

Zaharren omenaldiko ospakizunak gaur hasiko dira

Bazkarian, Maximiano Castro eta Josefa Ignacia Otaegui omenduko dituzte

Urtero legez, Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzu, Enplegu eta kooperazio arloak Zaharren omenaldi eguna antolatatu du.

Egun hori igandean, urriaren 10ean, ospatuko den arren, gaur hasiko dira egun honekin lotuak dauden beste ekimenak. Izan ere, Biyak-Bat erretiratuen elkartearen aurten urrezko ezteiak ospatzen dituzten bikoteei oroigarri bat emango zaie.

Haurren harrítzoa

Herriko haurrek ere gure herriko pertsona adinduei bere omenaldia berezia egiten diete.

Ama Guadalupeko Extremadura etxeak sustatuta,

marrazki eta olerkiak prestatzen dituzte haurrek egun honetarako.

Bihar eguerdian, olerki eta marrazki hobereinei saria emango zaie Biyak-Bat erretiratuen elkartearen.

Igandeko egitaraua

Igandean, izango da herriko adinduen egun handia.

Goizeko 11:00etan, San Pedro parrokiaren meza entzun ahalgo dute. Honetan, Alboka Abesbatzak, Patxi Etxeberria bertsolariak, trikitixa taldea eta dantzariak parte hartuko dute.

Irteeran, Ostarte taldeko gazteek loreak banatuko dizkiete pertsona adinduei.

Ostean, 12:30ean, Lasarte-Oriako Biyak-Bat erretiratuen

elkarteko abesbatza entzuteko aukera egongo da, Manuel Lekuona kultur etxean.

Azkenik, 14:00etan, 870 pertsona adindu bilduko dira Michelin kirolguneako pilotalekua egingo den bazkarian.

Omenaldiak

Ohikoa den bezala, bazkarian parte hartzen duten pertsona adinduenak omenduko ditu Udalak bazkalostean. Hauek Maximiano Castro, 1914. urtean jaioa, eta 1918an jaio-tako Josefa Ignacia Otaegui dira.

Honetaz gain, oroigarri bat jasoko dute aurten 80 urte bete dituzten edo beteko dituzten 23 herritarrek, 11 gizon eta 12 emakumek, hain zuzen ere. •

ELIZKIZUNA

San Pedro elizako meza ETB-n

ETB kateko grabazio taldea San Pedro parrokiaren izan zen lehengo larunbatean, hilaren 2an, 19:00etako meza grabatzen gero telebistan emateko asmoz. Bihar eta 16an ere grabatzera etorriko direla gogora arazi nahi dute ETBtik.

Asteburu hauetako igandetan *Meza santua* saioan ikusi ahalgo da Lasarte-Oriako parrokiako meza. •

XUMELA KANTUZALEAK

Kantuan hasi ziren astelehenean

Lehengo astelehenean, urriaren 5ean, Xumela kantuzaleen taldeak hasiera eman zion ikasturteari. Hemendik aurrera, Josu Txapartegi *Txapasek* zuzentzen duen taldea astelehenero bilduko da, 19:30etik aurrera Landaberri BHI, urriaren 11n, izan ezik. "Zubia dela eta, ez da entsegurik egingo. Beraz, urriaren 18an izango da hurrengoa," azaldu digute arduradunek.

Xumela euskal kantutegiari astindu bat eman nahi dion guztiari irekia dago. Kantuzaleen talde honen arduradunek herritarrek animatu nahi dituzte bertan parte hartzera, "nahiz eta musikaririk ez jakin, kantatzea gustuko baduzu zatoz gurekin. Astelehenero biltzen gara ezarriak berotzera eta ongi pasatzera."

Honetaz gain, aukera ona da lagun euskaldunak egin nahi dituen edonorentzat. •

LITERATURA TAILERRA

Gaur ikasturte hasierako bilera

Lasarte-Oriako Udaleko Kultura sailak urtero antolatzen duen literatur tailerra hasiko da gaur Manuel Lekuona kultur etxean.

Tailerreko saioak ostiraletan izango dira eta 16:00etatik 19:00etara iraungo dute. Doako tailerra da eta interesa duen edonori irekita dago.

Parte hartu nahi dutenek gaur egingo den lehen bilerara hurbiltzea besterik ez dute. •

LANAK

Bekokale bidea irekita norabide batean

Lasarte-Oriako Udalaren Hirigintzako Departamentuak jakinarazi zuen bezala, Bekokale Bidea itxia egon da, kiroldegia erretiratuen bidezko bidegurutzeraino.

Orain berriz, lanak aurrera joan ahala, norabide batean ireki dute bidea, honela, Loidiko tuneletik anbulatorioarantz joateko bidea zabalik dago. Erdialdetik Loidiko tunelera joateko bidea berriz, Goikaletik izango da.

Espainiaren Iparraldeko Konfederazio Hidrografikoak sustatuta, Lasarte-Oria-Hernaniko ur zikinak bulkatzeko hodiaren lanak dira Bekokalen egiten ari direnak.

Obra burutzeko epea hilabetekoa da eta urriaren 14an lanak amaitzea aurreikusten dute, beraz datorren asterako amaitzea aurreikusten dute. •



Haurrak eta heriotza.- Haur txikiak heriotza, galera edo dolu egoerataraz ohitzeko moduak eta gurasoek horrelako gaiak jorrazterakoan hartu behar dituzten jokabideak azaldu zituzten atzo, osteguna, Josune Martiarena psikologoak kulturetxean, guraso eta hezitzaileei zuzenduta Udaleko Osasun sailak antolatuta duen hitzaldi sortaren barruan. •

Istorioko harrigarriak entzuten

Asteartean, Manuel Lekuona kultur etxekeko haur liburuetan burutu zen *Ipuinaren orduak*, hurbildu ziren meeen irudimenaren atea ireki zituzten.

Ikasturteko lehenengo saio honetan, liburuetan 4 eta 5 urte bitarteko umez bete zen eta Pello Añorgaren istorioak entzun zituzten.

Haurrak erne egon ziren saio osoan zehar eta ipuin harrigarrietaz ederki gozatu zuten. Gainera, hainbat pertsonaia eta leku ezagutzeko aukera izan zuten, zoologikoa, esate baterako. •



Haur ugari bildu ziren Pello Añorgaren istorio desberdinekin gozatzeko.

Oriberen 'Barne arkitekturak' ikusgai

Miguel Angel Oribe eskultorearen erakusketaz gozatzeko aukera Urretxun

Miguel Angel Oribe bizitza erdia darama eskulturak egiten. Harriarekin hasi zen Artelekun, teknika gogorrena eta zehatzena ikasteko. Trebakuntzaren ostean, beste material batzuk erabiltzen hasi zen eta egun, zura eta burdina erabiltzen ditu gehien bat. Egun Urretxun aurkezten duen *Barne arkitektura* erakusketan zurraren garrantzia handia da, baita margotzeko teknika batena ere, serigrafia.

Barne arkitekturak erakusketan dugu oraingoan Miguel Angel Oriberen lan berria. Erakusketan Urretxuko Juan de Lizarazu aretoan egongo da ikusgai urriaren 17ra arte. Astelehenerdik igandera, arratsaldeko 17:30etatik 20:30ak arte.

Urte ugariok lana erakusten du eskultoreak eta osagai ezberdinez osatutako multzo bat da; egurrez egindako eskulturak eta serigrafia.

Hasiera batean, zati handiko eskulturak baziren, urtetik urtera pintura eta paper gaineko serigrafia zein korten altzairua eta kobrea xalflak bezalako beste teknika batzuk erabiltzen osatuz joan da.

Erakusketan honetako lan garrantzitsuenak kolumnak dira, herriko eskultorearen hitzetan.

Mugak bilatzen

Gainera hiru dimentsiotatik bi dimentsiotara pasatzean gertatzen dena eta teknika ezberdinen nahasketa zein lan batek izan ditzakeen lengoaien ondorioa da erakusketan honetako artista gehien erakartitako duena.

Izan ere, mugen bilaketa, ezagutzen ez dituen esparruetan aritzea, gune ilunak lantzea izan dira Miguel Angel Oribe eskultoreak lan hauek egiteko orduan izan dituen erronkak.

Influentzia iturriak

Honetaz gain, arkitekturaren eragina oso nabarmena da erakusketan honetan ikusgai dauden obratan; habeak, zutabeak, hormak, bizitzeko espazioak eta mugatutako espazioak, besteak beste.

Jean ARP, Jorge Oteiza eta bere desokupazioa, XVII. mendeko Miyamoto Musashi samuraia eta bere hutsune aberasgarriak, Zen medita-

zioa, Van der Rohe eta bere eraikuntzak, Gerardo Rueda, Palazuela eta Peña Ganche-

gui, besteak beste, izan dira eskultore lasarteoriatarren kontuan izan duten artistak lan hau egitekoan.

Nora goaz?

Gure buruan aurkitzen ditugun gune ezkutuko horiek jorratuz, babespean sentitzen garen leku horietan, zeinetan egunerokoarekin eten egiten dugun eta gure buruaren leku ezkutuetatik bidaiatzen garen.

Gizakia nora doan jakitea zaila da, baina benetan axola duena pixkanaka aurrera joatea da. Mugitzen garen bitartean... Hau guztia, erakusketan honetan sumatu daiteke.

Erakusketan polita eta mezu ugari betetako du *Barne Arkitekturak*. Miguel Angel Oribe berriro ere ikuslearen adimena martxan jarriko du.

Bere obrarekin bidaiatu nahi baduzu ez galdu aukera, Urretxun duzu hirtzardua hilaren 17a arte. •



Zura da Miguel Angel Oribe azken erakusketan erabili duen material nagusia, Recordando a Van der Rohe / lanean ere ikusi daiteke hori.



Ikasitakoa Euskal Inauteri konpartsan erakusteko aukera dute animatzen direnek.

Euskal dantzak ikasteko gogorik bai?

Euskal Dantzak gustatu eta ikasi nahi dituzula? Orain duzu aukera. Urteetan esperientzia lortutako ikasleek eskutik, gainera.

Izan ere, Felix Telleriak zuzentzen duen dantza taldeak ere ikasturteari hasiera emango dio, hurrengo ostegunean, hilaren 14an Landaberri institutuan, R.E.M. ohiaren eraikinean egingo den bilera-ekin, hain zuzen.

Honetan, kurtsuaren nondik norakoak azaldu eta

ordua eta egunak markatzeaz gain, helduak eta gazteak erakartzeko ideia ezberdinak jasoko dituzte.

Honen ostean, Landaberri B.H.I institutuan, R.E.M. ohiaren eraikinean izango dira dantza saioak.

Dantza taldeak herritarrek parte hartzea animatu nahi ditu. "Esperientzia oso polita da, eta gainera, ikasitakoa erakusteko aukera dago hainbat ekitalditan parte hartuz" azaldu digute antolatzaileek. •

Beñat Elizalde brontzezko domina eskuratu zuen Irungo txapelketan

LOKEko judoek lehiaketa denboraldia hasi dute eta dagoeneko eskuratu dute ikasturte honetako lehenengo domina, Beñat Elizalderen eskutik.

Larunbatean, urriaren 2an, Irunen jokatu zen nazioarteko San Martzial txapelketan izan zen hori, Beñat Elizalde judokak bere mailako brontzezko domina lortu zuenean.

Gorka Aristegi entrenatzaileak aipatu digunez, oso txapelketa ona egin zuen Elizalde: "Lehenengo bi borrokek erraz irabazi zituen, bata Gaztela Leongo judokaren aurka eta bestea, frantses baten aurka".

Finalaurrekoan, Katalunian borrokalari baten aurka lehiatu zen eta "borroka irabazia zirudien arren, Beñaten akats batek galtzera eraman zuen" jakinarazi digu entrenatzaileak.

Azkenik, brontzezko domina lortzeko asturien bati erraz irabazi ziola adierazi du. •



Beñat Elizalde gogor entrenatu da denboraldi hasiera honetan eta fruituak eman ditu.

Ordaindu ATERPEAko TXARTELArekin!



Deskontuak gure dendetan

**eta orain Alerru gasolindegian % 2ko
deskontua depositoa betetzerakoan**



Geltoki 2 • LASARTE-ORIA
Idiazabal kalea 32 • URNIETA
Tel.: 943 365846



Juan XXIII. , 10 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362353
www.merceriaaritz.com



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 361080 • Tel./Faxa: 943 372521



Uzturre plaza 2, behea • Tel./Faxe: 943 360591
LASARTE-ORIA

Maite **B**ETELU

- Gestoria
- Aholkularitza
- Inmobiliariako zerbitzuak
- Aseguruak
- Etxebizitzen administrazioa

Aralar plaza 4 eta 6, behea • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 364886 • Faxa: 943 372117

Bideo Lagunak



Donostia Etorbidea 2 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 373134
jose@bideolagunak.com
www.bideolagunak.com



BEROGAILUEN INSTALAZIOA
OSASUN APARATUAK ETA
INSTALAZIO INDUSTRIALAK

Kale Nagusia 73 • Lasarte-Oria
Tel. eta Faxe : 943 364599
www.fontaneriabiyona.com
pili@fontaneriabiyona.com



Pablo Mutiozabal, 2
20160 Lasarte Oria
Tel./Faxe: 943 36 62 28
www.ekain.net



Kale Nagusia 42, behea
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 362659



Goxogi
Geltoki kalea, 6
Telefona : 37 08 48
LASARTE-ORIA



Nagusia 34
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 365626



Geltoki kalea 19 • Tel.: 943 371384
Juan XXIII.a plaza, z/g • Tel.: 943 364945
www.izarrabitxitegia.com



Pintore Kalea I behea
Tel.: 943 369679



Kale Nagusia 39 • LASARTE-ORIA
Tel.: 943 372668 Faxe: 943 370737
patxilarranaga@telefonica.net
www.patxilarranaga.com



Hipodromo etorbidea 8
(Anbulatorio zaharraren aurrean)
Tel.: 943 366482
LASARTE-ORIA



Uistin 4
20.160 Lasarte-Oria
Tlf. Fax. : 943 37 08 46
652 77 11 01



Loidi Kalea, 4
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 366 471



Hipodromo etorbidea 8
LASARTE-ORIA
Tel.: 943 363665



Nagusia 21 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 361403



Hipodromo etorbidea 8 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 361885
Kale Nagusia 41 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 363912



Nagusia 46
20160 Lasarte-Oria
Tel.: 943 370950



Nagusia 33 • Tel.: 943 361535



Geltoki kalea 13 • Lasarte-Oria 20160
Tel.: 943 370048



Nagusia 35 • Lasarte-Oria
Tel.: 943 361195



Zirkuitu ibilbidea 10
(gasolindegia atzean)
Tel.: 943 362457 • LASARTE-ORIA



Nagusia Kalea 46 behea
20160 Lasarte Oria
Tel.: 943 371386



Juan XXIII plaza 2 behea
Tel.: 943 364647



Deitu gure zerbitzua ezagutzeko
943 366 377
Ola kalea,10 San Bartolome, 22
Lasarte-Oria 20160 Elgoibar 20870
www.dentalaldaz.com



Kale Nagusia 42
Tel.: 943 362979

Kiroletako agenda

FUTBOLA

Larunbata 09

10:00etan, Ostadar - Zarautz (Emakumezkoen KDT F-II) Michelinen.

11:30ean, Ostadar - Allerru (Jubenilen Ohorezko Maila) Michelinen.

15:30ean, Ostadar - Zumaiako (Emakumezkoen Liga) Michelinen.

17:15ean, Ostadar - Texas Lasartearra (I. Erregionala) Michelinen.

11:30ean, Urnieta - Ostadar (I. Kadetea) Urnietan.

11:30ean, Vasconia - Ostadar (Infantil Txikiak) Pui, Donostian.

13:00etan, Vasconia - Ostadar (Kadeteen Ohorezko Maila) Pui, Donostian.

19:30ean, Irun - Ostadar (Erregional Gorena) Gal, Irunen.

Igandea 10

10:30ean, Ostadar - Sporting de Herrera (Infantilen Ohorezko Maila) Michelinen.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 8

22:30ean, Idiazabal Pilarrena jatexea - ISU Leihoak (Gipuzkoako Liga, I. maila) Zelaa kiroldegia, Idiazabalen.

Igandea 10

11:00etan, Orioko tabernak - Aldaz H.K. (Nazional B maila) Karela kiroldegia, Orion.

PILOTA

Ostirala 8

20:15ean, Oiarpe 2 - Intza (Eskuz binaka III. Seniorra) Madalensoro, Oiartzunen.

JUDO

Larunbata 9

Asteburu osoa, Mario Garrido Sizi- liara doa Hondarrabiko taldearekin nazioarteko taldekako txapelketan parte hartzera.

Igandea 10

Egun osoa, LOKEko kadeteek 13. Paueko nazioarteko txapelketan parte hartuko dute.

ATLETISMOA

Igandea 10

11:00etan, hainbat herritarrek 3 Hondartzetako XXI Amstel Kros- san parte hartuko dute, Donostian.

TXIRRINDULARITZA

Igandea 10

08:30ean, Ostadarreko zikloturista taldeak Berastegira egingo du irteera

David Martin izan da Zumaiako Zakila Biran garaile

Gonzalo Sukunza eta Jose Luis Delgado herritarrak lehenengo hamarrenen artean sartu ziren



David Martin fin ibili zen Zumaiako Zakila Bira lasterketa eta proba irabazi zuen.

Asteburu honetan, herri-ko korrikalariak bi proba gogorretan parte hartu zuten. Batetik Zumaiako Zakila Bira lehiatu zen larunbatean, urriaren 2an. Bertan, beroari eta haizeari aurre egin behar izan zioten korrikalariak eta David Martin herritarrak garaipena eskuratu zuen. Baina ez zen proban ongi ibili zen lasarteoriatar bakarra izan.

Bestetik, Done Jakue bidean zehar egiten den Orreaga-Zubiri lasterketa ere burutu zen igandean eta lasarteoriatar talde bat egon zen bertan.

Zakila bira

Larunbatean, 700 bat korrikalariak parte hartu zuten Zumaiako Zakila bira proban. 20 kilometrotako ibilbidean bero izugarria eta haizea jasan behar izan zituzten lasterkariak.

Zouinat Mouloud eta Aiamad Bouziane atleta marokarrak lasterketa osoan buruan egon ziren.

Baina, helmugarako hiru kilometro falta zirela, David Martin lasartearrak bi korrikalariak pasa eta helmugara bakarrik iritsi zen 01:08:21 denbora eginez.

Lasarteoriatar fin

Davidez gain, beste bi lasarteoritar ere fin ibili ziren, batetik Gonzalo Sukunza bosgarren postua eskuratu zuen 01:10:02 denborarekin eta 01:12:30-ko markak bederatzigarren postua eman zion Jose Luis Delgado.

Baina ez ziren proba

lehiatu parte hartu zuten herriatar bakarrak izan.

Hauk dira lasterketa bukatu zuten herritarrak eta haien denborak: Javier Olazagoitia, 01:25:57; Juan Mari Marcos, 01:26:44; Javi Gil, 01:30:01; Francisco Borja Romero, 01:31:19; Luis Enrique Gallego, 01:33:07; Fede Otaegi, 01:33:45; Eduardo Rivas, 01:34:40; Pablo Utero, 01:39:40; Igor Amantegi, 01:41:01; Joxe Goikoetxea, 01:41:42; Jose Ramon Mendizabal, 01:41:47; Jose Luis Duran, 01:43:45; Pablo Garmendia, 01:44:31; Joseba Lertxundi, 01:46:09; Mikel Ormazabal, 01:47:51; Aitor Sorozabal, 01:51:12 eta Peio Fadrique, 01:51:35.

Orreaga-Zubiri

Bestalde, igandean, urriaren 3an, Orreaga-Zubiri proba

lehiatu zen. 800 korrikalari- ren artean, Ostadar taldeko kirolariak eta herritar batzuk parte hartu zuten.

Done Jakue bideko 21,5 kilometrotan egiten den lasterketa honetan, parte hartzaileek mendiko bide, errepide eta zoru desberdinetan egin behar dute korrika Zubirira iritsi baino lehen.

Herriko azkarrena, Julen Ollokiegi izan zen 1:38:14 denborarekin, bestek honako denborak egin zituzten: Jose Ignacio Elvira, 1:42:23; Mikel Izagirre, 1:48:22; Joseba Iparraguirre, 1:51:17; Sergio Rivera, 1:56:58; Xabier Prada, 1:59:39; Jose Ignacio Mendiluce, 2:07:33; Juan Mari Sarobe, 2:17:42; Jesus Balerdi, 2:17:42; Juan Prieto, 2:17:42; Maite Toquero, 2:17:42; Josean Hernandez, 2:23:13 eta Oihana Salazar, 2:34:34. •

Kiroletako oharrak

Futboleko Porra

Ostadar K.F.-k antolatutako duen lehenengo itzuliko futboleko porrak badu bere lehenengo irabazlea. Estatuko ligako 6. jardunaldiako, hau da, urriaren 3ko asteburuako jokalarien puntuaketak kontuan izanik, irabazlea Abend-en egindako Javi Garcia txartela da, 91 punturekin.

Erregionalen derbia larunbatean Michelinen

Nahiz eta zubia izan, kirolak ez du atsedetik hartuko gure herrian.

Partida ugari ikusi ahalko dira Michelin kirol guneko futbol zelaietan.

Derbia erregional mailan

Horien artean esanguratsue- na, I. Erregional mailako herriko bi taldeen artean izango den derbia dugu.

Ostadar eta Texas Lasartearra taldeko taularen erdiko postuetan daude, 3. jardunaldia jokatu ostean.

Ostadarrek erregional taldea sortu du iazko ohorezko jubenteko taldeko jokalariekin eta Igor Bere dute entre-

natzaile. Talde honek partida bat berdindu du, bina, etxean Añogaren aurka eta kanpoan, aurreko asteburuan 1-2 irabazi zion Hernaniri eta lehenengo jardunaldian, Vasconiaren aurka galdu zuen.

Texas Lasartearrak, berriz, iazko taldearekin jarraitzen du bai zelaietan, baita eserlekuaren ere. Honela, Koldo Ageitosen mutilek etxean bi partida galdu dituzte Usurbil eta Andoaingo Ontzerreren aurka eta kanpoan Danenari 1-2 irabazi zioten.

Bihar 17:15ean, hasiko da partida eta herritarrei hurbildu eta animatzeko gonbita egin nahi diete. •



Orreaga-Zubiri lasterketan parte hartu zuten herritarrek argazkia atera zuten proba hasi baino lehen. Arg.:Joseba Iparragirre

Egunero

Erakusketa

HEGOALDERA BEGIRA, Irati Ber-gararen argazki erakusketa urria osoan. Irati *Aprende-h Euskadiko* kidea da. Jalgi kafe-antzikian, egun osoan zehar.



Larunbata, 9

Kontzertua

KAOS KOOPERATIV eta SNIFFERS taldeek kontzertua eskainiko dute. Sustrai tabernan, 19:00etatik aurrera.

Igandea, 10

Omenaldia

ZAHARREN OMENALDIKO JAIALDIA. Manuel Lekuona kulturetxean, 12:30ean. Ondoren bazkaria izango dute Michelingo Frointoiari.

Zinea

EL PEQUEÑO NICOLAS haurrentzako filma eskainiko dute. Sarrera, 3,15 euro. Kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Ostirala, 15

Kontzertua

MANTISA taldearen emanaldia. Talde honek Hard core melo-



Ostegunetako zinea berriro martxan

Martxan da berriro Okendo Zinema Taldearen eskutik ostegunetako zinemaren zikloa. Ikasturteari hasiera EN TIERRA HOSTIL filmarekin emango diote. Filma Iraken dago kokatua. Bertan lehengailuak desaktibatzea dedikatzen den brigada baten egunerokoa ikusi daiteke.

OSTEGUNEAN, HILAREN 14AN
KULTURETXEAN 21:30EAN
SARRERA 4,20 EURO

dikoa lantzen du. Jalgi kafe-antzikian, 23:00etan, EUSKARAZ.

Igandea, 17

Zinea

SHREK, FELICES PARA SIEMPRE haurrentzako filma eskainiko dute. Sarrera, 3,15 euro. Manuel Lekuona kulturetxean, 17:00etan, GAZTELANIAZ.

Asteartea, 19

Hitzaldia

PROSALUS GKEak hitzaldia eskainiko du. Manuel Lekuona kulturetxean, 19:00etan.

Asteazkena, 20

Hitzaldia

FIBROMIALGIARI buruzko hitzaldia. Kulturetxean, 18:00etan.

Oharrak

Urrezko ezteiak

Fortunato Sanz-ek eta Francisca Zuriarrainek urrezko ezteiak ospatuko dituzte, bihar, urriaren 9, Aian eguerdiko 13:00etan. Ondo pasa zuen eguna!

Marrakzi eta margo eskola

Lasarte-Oriako Bizilagunen elkarteak marrakzi eta margo eskola martxan da dagoeneko, lehenengo eskola eguna urriaren 6a izango da. Eskolak asteazkenetan eta ostegunetan 18:30etik 20:30era eta larunbatetan 09:30etik 11:30era izango dira. Interesa dutenek kulturetxeko 2. Solairura jo behar dute.

Oztabide elkarteak loteria

Oztabide auzo-elkartek Arranbide-Oztaraneko auzotarrei jakin arazten die eguberrikotako loteria salgai dagoela. 19108 zenbakia da eta 3 eurotako (loteria: 2,5 euro eta emaria: 0,5 euro) loteria partaidetzak dira hartu daitezkeenak.. Loteriako

partaidetzak Txema tabernan (Andapa kalea, "Zumaburu") eta Coviran supermerkatuan (Ozataran enparantzan) erosi ahal izango dituzte.

Bide batez, gogora arazi nahi dizuegu administratza gastei aurre egiteko baliabide hau bakarrik daukala elkarteak.

Diru-laguntzen eskaerak

Lasarte-Oriako Udaleko Gizarte Zerbitzuetako, Enplegu eta Kooperazioko Departamentuak gizarte-ongi-zatearen alorrean lanean diharduten erakunde eta elkarte guztiei jakinarazten die gaur irekiko dela sail honek eman ohi dituen diru-laguntzen eskaerak aurkezteko epea.

Horretarako eskariak Udaletxeko Erregistro Orokorrean aurkeztu behar dira, 9:00etatik 13:30era bitartean, eskatutako agiriekin batera, hau da, memoria, gastuen justifikazioa eta jardueren proposamena.

Hori guztia aurkezteko epea urriaren 24era egongo da irekia.

Galdutako gauzak

Udaltzainen bulegoan gauza hauek daude jasota, diruzorroa, urrezko katea, zilarrezko zintzilikarioa, urrezko aliantza Jose Luis grabaketarekin, hiru bizikleta, Shiroko markako motozikleta kaskoa, Samsung markako segapotoa, zilarrezko pulsera eta kamisetak beltz bat.

Gauza hauen jabeak direla egiaztatzen duten herritarrek, hilabeteko epean jaso behar dituzte.

Horietakoren bat ikuskatzeko interesaturik dauden pertsona guztiei eskatzen zaie Udaltzainen Bulegora hurbil daitezela, 09:00etatik 13:00etara.

Oharrak jartzeko:

Geltoki kalea 4
Tel.: 943 366858
txintxarri@txintxarri.info

Eskutitzak

Kuku! adiskide maite hori, kuku!

Kukuka gatoz gaur zuengana, bai. Zergatik Kukuka? Ui! Hori galdera! Zergatik, zergatik, zergatik... Zergatik izango da, bada? Ez al duzue esaera zaharra ezagutzen, ala? Adi, bada, adi... "Kukuaren soinua aitu ezkerro, poza". Ulertzen? Poza. Poza! Pooza! Horregatik gatoz Kukuka zuengana gaur, gure pooza zuen poooooooooooza ere izatea gustatuko litzaigukeelako. Horregatik Kukuka ari gu. Ari eta ari Kukuka gu.

Ea nondik gatozen? Uiii... historia luzea du horrek. Dozena urte luze pasatako historia da gurea, Zabaleta auzoan hasia. Hantxe entzun zuten kukua lehenengo aldiz. Ume, zahar, heldu eta gazte bildu plazan eta kukua entzun zuten. Ez kukuak kantatutako kukua, ez, ez, ez... hori gauza arrunta da Zabaleta-koentzat. Errazegia. Ez, bertako txoriburu koardriala batek egin zuen kuku! Oholtzara igo, oihalaren atzetik gorde eta kuku! egin zuten pajaruek. Oihala altza gero eta... antzerkia egin zuten oholtza gainean lehenengo aldiz. Txoriburu eta etxoriburuen pozera, antzerkia egin zuten. Hori lehenengo aldia. Eta hurrengo aldietan gehiago. Pooooooooza gehiago.

Horrenbeste poza auzoan ezin kabituz, oholtza eta oihala mokoan hartu eta Landaberri Ikastolara ino egin zuten hegan. Txoriburu eta pajaruek, denek, flop! flop! flop! egin zuten hegan. Eta bertan, kuku!... eta antzerki gehiago egin zuten. Eta pooooza gehiago. Umeek eta gurasoek pooooooza handia hartu zuten. Eta dantzan hasi ziren orduan. Logiko, ezta? Antzerkiari utzi gabe, dantzari ekin zioten. Bederatzi urte pasa dira flop! flop! flop! egin zutenetik.

Orain, herri osora zabaldu da poza, ez bakarrik

Landaberri Ikastolan, Sasota-Zumaburu eskolan eta Institutuan ere kuku! aittu... eta pooooza! Tira, helduen taldeak ahaztu gabe, Solaskidekoak... No! bada koardriala ederra, ezta! Badago pozik egoteko motiborik, ezta!

Gu pozik gaude, benetan. Kukuka ari eta ari pozik gaude. Eta lasartear guztiekien konpartitu nahi dugu gure bizipoza. Zuekin ere bai, jakina, horregatik gatoz zuengana. Begira. Aittu. Ondo aittu, e! Kukuka ari baikara gu, e! ez txantxetan. Aittu, beraz. Begira. Ez despistatu:

Lasarte-Oriako KUKUKA Antzerki eta Dantza Eskolak antolatua, jaialdi handi bat ospatuko da datorren urriaren 30ean, Zubietako Frointoiari, arratsaldeko 18:00etan, bertan PIRRIITX, PORROTX eta MARIMOTOTSek beren ikuskizuna eskainiko dutelarik.

Asko gozatuko dugula badakigu, baina guk asko-asko-ikaragarri-asko gozatu nahi dugunez, denok aldi berean hanketan behera pixa egiteraino gozatu nahi dugunez, bada... zera... ideia bat txoriburururatu zaigu. Jijijiji. Ideiatxo bat baino ez. Jiiiiiiiiijijijijiii. Baina ez beldurtu, e! Lasai. Ez beldurtu zuek. Juajua-juaaaa... (ai ene, hau barre-gura...). Oholtzara igo beharko duzue, horixe besterik ez da. Zuen elkarteak batzuk oholtzara igo eta gurekin konpartitzea nahi dugu, modu alaitsuan. Talde bakoitzari Pirritx eta Porrotxen kanta bat eskainiko zaio koreografia erraz baten bidez oholtza gainean dantzatzeko. Lasai, ez da Kristo bera izan behar miraria lortzeko, ordu pare bat aurretik entsaioa egin eta listo, eta zalantzaren bat baduzu, deitu lasai 655 847 345 telefonora.

Poooooooooza eta gooooooza zera...

Kuku!

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskola

Dagokionari

Hauxe duzu zure iritzia eta nahi duzuna adierazteko atal aproposa. Bidali edo zuzenean ekarri TXINTXARRI aldizkarira. Horretarako aukera desberdinak dituzu; telefonoz, 943 366858 zenbakira deituta, posta elektronikoz mezua txintxarri@txintxarri.info helbidera bidaliaz edo bulegora ekarriaz (Geltoki kalea 4).

Joseba Tapia Trikitilaria

“Buenos Aires-en datorkit inspirazioa”

"Eta tira eta tunba" azken karlistadako abestiak jasotzen dituen disko berria argitaratu du

Joseba Tapiak II. karlistadako abestiekin osatu duen "eta tira eta tunba" disko berria aurkezten ari da asteotan. Gaur bertan arratsaldeko Setan Hernaniko Biteri kultur etxean izango da eta hilaren 29an Donostian Lugaritz kultur aretoan. "Hor aterako ditugu haizeak metaletatik, doinuak listu tartetik, kantua karlistetatik (bandatik, noski)" esan digu musikari lasarteoriatarrak.

Jon ALTUNA

Zakurraren *Biolina* diskoetxea sortu zuen Joseba Tapiak duela lau zapabost urte eta argitaratzen duen bigarren diskoa da: "bigarrena geuk etxean sortua, *Zakurraren Biolina* zigiluak ekoiztua. Ez dakit noiz arte baina oraindik diskoa geuk atera beharra sentitu dugu. Ez dakigu nora garamatzaten eta norantz. Ez dakigu ongi aterrizatuko ote dugun ere, diskoen mundua aldaketa batean dagoelako eta gu baino diskoetxe indartsuagoak noraezean ikusten ditugulako".

"eta tira eta tunba" du izenburu zure disko berriak...

Berrehun urte egingo ditu las-ter, gutxienez, nik dakidala, aurreneko karlistada garaitik datorren kantu ezagun baten leloa baita. Aldaera ezberdinean kantatu izan ditu herriak: *belarrimotxari* edo *guardia zibilar* edo *e uskaldun txarrari* bukaera aldatuta. Karlistek liberalen kontra idatzitako kantua da: *Viva don Karlos eta Doña Margarita, biba reljijyua fuera republika, Eta tira eta tunba eta tira beltzari, eta tira eta tunba...*

Pozik zaude orain arte inork musikatu ez zituen II. Karlistadako abesti eta bertsoak jasotzeko aukera izan duzulako. Zenbaterainoko albaxora da?

Pozik nago eta ez dut ukatuko, baina tristetasun bat ere badaukat. Hain zuzen, kantu zoragarriok ez direlako lehenago plazaratu kantagintza moder- noan. Gure folkloreaken zati bat dira. Gure kantutegi tradi- zionalaren parte dira.

Euskal Herrian gertatu zen eta gertatu behar ez zuen gerra bat izan zen. Bi alderditan eus- kaldunak daude, karlistak eta liberalak, biak bertsoan, biak euskaraz. Kantutegi oso bat hortxe eduki dugu eskura baina ez genituen disko batean bildurik ezagutzen. Horregatik eta batez ere edertasun handia dagoelako bertso hauetan, bai gaiaren aldetik baita for- maren aldetik, gogoz heldu nion proiektuari.

"Karlisten bigarren gerrateko bertsoak" liburua noiz izan zenuen esku artean eta noiztik ari zara buru belarri proiektu honekin?

Ez dakit zehaztasunez esaten; urte eta erdi, gutxi gorabehe- ra... Proiektu ezberdinak nituen mahai gainean. Saiok egiten aritu nintzen batean eta bestean. Baina piskana indar gehiago hartu du kantutegi honek. Doinu batzuk eginak eta gerorako utziak nituen ondoren errepasatzeko. Hala- ko batean horretan jarri nin- tzen, doinuak azkarrago zetozen, osotasuna bilakatu zen arte. Gero diskorako batzuk baztertu eta beste berri batzuk ekarri nituen, azke- nean hogeitabikoa osatu arte.

Gerra zibila jorratu zenuen, orain karlistada, aspaldiko kantuen bidea jada urratua edo agortua al da, edo ba al da oraindik non begiratu?

Karlistaden sail honetan kantu asko gelditu dira diskotik kan- pora: Xenpelarrenak eta beste askorenak esaterako. Eta egizu kontu nire kantuok denak bigarren karlistadakoak direla, aurrenekoak hor daude zain...

Bestetik, ia herriero aurki- tzen ahal dira istorioak, kon- tuak eta kantuak.

"Agur Intxorta maite" dis- koan ere kantu asko gelditu ziren bazterrean, kartzelaldi- koak edo desterrukoak adibi- dez. Beraz hor ere zer landua badago. Noizbait tirako diot soka horri.

Gustuko al duzu paper eta kontu zaharretan arakatzea?

Gure ofizioak eskatzen du tra- dizioaren ezagutza eta, beraz, arakatu beharra dugu. Baina ez dut edozer bildu edo landu nahi. Gertaera sozialek eta askotan ezkutuan egon diren egiek pitzen didate interesa, herriaren ahotsean aurkitzen den edertasunak, galtzailearen bertsoia...

Umorea beti izan da zure lane- tan, gerrari buruzko honetan ba al dauka tokirik?

Egoera gogorrenetan, injustizi handienean egonik ere jen- deak umorea sortzeko izan duen kapazitateak liluratu egiten nau. Beste perspektiba bat eskaintzen du. Gure ara- zoa txikitu egiten du, aurre egiten erakusten digu. Bizitza- ren borborak erakusten du. Nik uste dut disko honetan umoreak leku handia hartzen duela. Elkarren kontrako ber- tsoetan ironia, burla... Irudi- men handia agertzen da.

Beste zer dauka eduki aldetik?

Karlistek, mertzenarioak dire- la aurpegiratzen die etengabe liberaleri. Diruaren truke dabilzala gerran. Karlos seti- mo eta doña Margaritaren albo oihuak etengabeokoa dira. Gero damua ere ageri da. Azkenerako konturatu dira Karlisten alde ibili

direnak engainatu egin zituz- tela. Beren goikoek desanpa- ratuak utzi dituzte eta foruak eta beste, bost axola zaiela konturatu dira.

Liberalak aldiz, ezin dute konprenitu apaizak nola dabil- tzen armak hartu eta tiroka. Eta etengabe aipatzen dute hori ez dela erlijioak dioena.

Liberalen artean ere euskal- dunak baziren eta foru zaleak ere bai. Bi bandoetakoek eus- kara erabiltzen dute bertso hauek idazteko. Beraz gizarte baten kontraesana agerian gel- ditzten da; batzuek gizartea modernizatu egin nahi dute eta besteek tradizioa salba- guardatu. Esaten da gure azken gerrate zibila izan zela Bigarren karlistada hau.

Zein irizpide erabili dituzu ber- tso edo letrak musikatzeko?

Lehenago bertsoak moduan, kantaera tradizionalen usai- nean doinuak sortzen saiatu naiz, gaurko eraginetik alden- tzen. Baina haizeko instrumen- tuentzat moldaketak egiten libreago ibili naiz. Hor influen- tzi modernoagoak onartu ditut. Hala ere ez zait iruditu giroa zikitzen zutenik eragin moderno horiek. Doinu guz- tiak trikitixarekin egin ditut eta gero etorri dira moldaketak.

Leturiarekin bikotea, folk-hiru- kotea, biolin eta tekla laukotea, rock Banda,... hainbat talde ezberdin osatu ondoren, orain txarangabxoarekin zatoz...

Metalak garai hartara hurbiltze- ko hautatu ditut. Garai hura musika banda eta banda milita- rrearekin irudikatut. Bakarka daramadan ibilbide honek aukera ematen dit, testuak eskatzen badu, musika horni- dura ezberdin bat egiteko.

Zuzeneko emanaldia berezia izango da...

Txandaka ibiliko naiz; batzue- tan liberalen bandarekin joan- go naiz kontzertura, bestetan karlistenarekin. Jende onekin lan egiteko aukera izan dut eta halabeharrez bi banda osatu ditugu. Bietan gustura nabil. Biek eskaintzen dute kantu beraren aldaera ezberdin bat.

Sei lagun eszenatoki gai- nean. Saiatuko gara garai hura gogoratzen, testuingurua eza- gutu, bertan egongo bagina bezala izango da gure kontzer- tua. Horrela gertu-gertutik kan- tuak dastatuz, leloak kantatuz, batzuen eta besteen arrazoiak izantuz, karlista eta liberal izango gara momentu berean.

Dozena bat disko jada, deneta- rikoak,... noiz arte trikitixa munduan berritzaile?

Horretan saiatuko naiz ahal dudatan bitartean. Garunak, bidezte eta ahotsak laguntzen didan arte. Kantagintzari lotua ikusten dut nire trikitixa; kon- promisosko lan bati hauspoa ematen. Hortxe aurkitzen du berrikuntza; azal berritu egiten da, lehenago larrua bota eta berria jantzi. Odolberritu, oxi- genoa hartu eta anhidridoa bota, landareen tankeran geroz eta helduagoko martxan gara.

Jarraitzen al duzu Leturiarekin erromerietan?

Tarteka joaldiren bat egiten dugu laguneren artean. Baina karlistek eta liberalak izutu eta alde egin du zaldia hartuta.

Egoten al zara Buenos Airesen?

Bertan egon baino pasa egiten naiz Buenos Airstik. Buenos Aires da nire aberria halere, nire sorleku eta sortoki. Bue- nos Airesen etortzen zait inspi- razioa. Buenos Airesen erosten dut ogia, Buenos Aires da nire auzoa, hor goien, Zabaletaren proan. •

www.binxarri.info web atarian irakurri daiteke elkarrizketa osoa

Bi bandoetakoek euskara zerabilten. Esaten dute gure azken gerrate zibila izan zela Bigarren Karlistada

